



BALIOZKO PROPOSAMENA

Teknologia eta inteligentzia artifiziala dira gure proposamenaren oinarriak. Horregatik, ikasleen lanak erraztuko dituen aplikazio bat sortu dugu, lanak egiteko denborarik ez duten ikasleentzako hain zuzen ere; eskemak zein testuak egiteko eta laburpenak eta apunteak egiteko gai izango da argazki baten bidez. Mind Up da aplikazioaren izena.

Lehenik eta behin Mind Up nola erabili eta eskuratu daitekeen azalduko dugu. Gure aplikazio hau “App Storen” zein “Google Playen” dohainik deskargatu ahal izango da. Ez da leku hauetatik bakarrik eskuratuko, internetaren bidez ere lortu daiteke, webgune bat sortu dugu non aplikazioa erabiltzeko aukera egongo da, hori bai, aukera gutxi batzuk aplikazioarekin bakarrik erabiltzeko egongo dira.



Mind Up deskargatzean, lehen zeregina, erregistratzea izango da. Bakoitzaren gmail edo mugikorreko zenbakiarekin sartzeko aukera egongo da. Ondoren, hizkuntza bat aukeratu beharko da baina gero edozein momentutan aldatuko daiteke ezarpenetan. Horren ostean, pantaila nagusia azalduko da. Bertan, lau aukera egongo dira: laburpenak, apunteak, eskemak eta galderak. Edozein aukeratu sartu eta gero IA-ri behar diren galderak edo eskaerak egiteko aukera egongo da. Apunte, eskema edo laburpenak egiteko argazki bidez; mugikorrarekin argazki bat atera eta aplikaziora igo, ondoren aplikazioari eskatzen da zer nahi den aplikazioak egitea (laburpena, eskema edo apunteak puntuka), horrez gain, testua eskuz idatzi mugikorrean edo ordenagailuan eta aplikazioara ere igo daiteke, pertsona bakoitzak jarriko du testu horrekin zer lortu nahi duen, eskema bat, apunteak edo laburpen bat.



Gomendagarria izango da testu bidez IA-ri eskuratzea, argazki bidez igotako letra batzuk, txukunak ez direnak, irakurtzeko zailtasunak edukiko ditu eta litekeena da egin behar duena ez egitea. Hala ere, emandako erantzunak, hau da, apunteak, eskemak edota laburpenak deskargatzeko edo kopiatzeko bertan aukera emango du, ondoren fotokopiatu ahal izateko.

Bertan, izena eman ondoren, hainbat aukera desberdin egongo dira. Esan beazala, testuak laburtzeko, apunetak zein eskemak egiteko eta edozein galderari erantzuteko gai izango den Inteligentzia Artifizial bat egongo da, hau da, aplikazioaren zereginak

Inteligentzia Artifizial batek egingo ditu. Inteligentzia Artifizial honek hilabetero eguneraketak jasoko ditu, arazoak konpontzeko eta gauza berriak eransteko.

Mind Up-i hainbat hizkuntzetan idatzi diezaiokezu: gaztelaniaz, euskaraz, Erresuma Batuko ingelesez, AEB-etako ingelesez, portugesez, alemaniarrez, frantsesez, txineraz eta japonieraz. Mind Up-ek, zuk hitz egiten edo eskatzen diozun hizkuntzan erantzungo dizu, baina beti ere aurretik aipatutako hizkuntzetan. Gure aplikazioan beste hizkuntza betenbat txertatzeko aukera edukiko dugu, datuak analizatuz, beste tokietako jendeak erabiltzen badu, beste hizkuntza horiek txertatzea pentsatuko genuke.

Mind Up-en barruan, iragarkiak egongo dira eta bi apunte/eskema/laburpen egiteko aukera egongo da inolako harpidetzarik gabe. Iragarkiak ez edukitzeko eta eskaintzen diren baliabideak mugatuak ez izateko, bi harpidetza mota desberdin egongo dira. Lehenengo harpidetza mota, beste harpidetza aukera baina merkeagoa izango da, harpidetza honek iragarkiak guztiz kenduko ditu eta astero bi apunte, eskema edo laburpen gehiago egiteko aukera emango du. Bigarren harpidetza mota garestiagoa izango da, baina erabili daitezkeen baliabideak mugagabeak izango dira eta iragarpenik ez da egongo, lehenengoan bezala. Esandakoaz gain, harpidetza motak lortzeko bi aukera ere egongo dira, lehen aukera hilabetero ordaintzen dena eta bigarren aukera urtean behin ordainduko da, aukera honek deskontu txiki bat edukiko du uda diren hilabeteetan eskola ez dagoelarik.

Mind Up bere antzeko inteligentzia artifizialak baina hobea izango da. Eskainiko dituen baliabideak zehatzagoak izango baitira. Gure aplikazioak, informazio ahalik eta zehatzena eskuratuko du eskema, apunte eta laburpenak ahalik eta hoberen egiteko. Informazio zehatza lotzeko, webgune fidagarri eta informazio sakona dagoen webgunetan hartuko du informazioa gure aplikazioak. Beste inteligentzia artifizialetatik asko bereiziko digu honek, guk eskeiniko duguna askoz ere zehatzagoa eta seguruagoa izango delako.

